


Harremanak, gauza handien sortzaile: soziokonstrukzionis moa eta lankidetzarako praktikak



04.Mar - 31.Mar

Kod. @15-19

Edizioa
2019

Jaduerara mota
Online ikastaroa

Data
04.Mar - 31.Mar

Hizkuntzak
Euskara

Balio akademikoa
30 ordu

ZUZENDARITZA

Garbiñe Delgado Raack, SolasHari

Antolakuntza Batzordea

UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
UPV/EHU



Fundación **BBVA**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Azalpena

Soziokonstrukzionismora eta lankidetzarako praktikak ezagutzeko ikastaroa izango da: mundua ulertzeko ikuspuntu hauek zertan datzaten, zeintzuk diren euren ideia nagusiak eta ideia hauetatik ondorioztatzen diren praktikak.

Metodologia: partehartzailea. Lankidetzarako ikasketa komunitate bat sortuko da non hasiera batetik parte hartzaileen ahots guztiak entzuteko eta elkarbanatzeko dinamikak erraztuko baitiren. Komunitate horretatik landuko diren gaiak, lantzeko erak, sakontasuna, etab. eztabaidatu dira, nahiz eta ikasketa espazioa erraztuko duenak espazio hau kudeatzeko eta aukerak zabaltzeko proposamenak aurkeztu.

Ebaluazioa: Azken astean egingo da, ikasitakoaren praktikotasuna lantzearekin batera. Ebaluaketak ikasketa espazioa errazten duen pertsonaren, ikaslearen beraren eta ikasketa komunitatearen ikuspegiak barne hartuko ditu.

Ebaluazioaren hasiera data: 25/03/2019

Ebaluazioaren bukaera data: 31/03/2019

-30 ordu 4 astetan zehar (astero 7-8 lan-ordu)

-**Hasiera:** 2019/03/04 **Bukaera:** 2019/03/31

-**Tarifa bakarra:** 80 euro

-**Hizkuntza ofiziala:** euskara

Helburuak

Soziokonstrukzionismo eta lankidetzarako praktiketara sarrera bat egitea

Konstrukzionismoaren eta lankidetzarako praktiken autoreak aztertu: Gergen, Shotter, McNamee hala nola Anderson, Londres, Grandesso...

Mundua ulertzeko eta munduan kokatzeko era hauen oinarrian dauden premisak ezagutu

Partehartzaileen eguneroko praktikan ikuspuntu hauetan kokatzeak dakartzan ondorioak aztertu.

Programa

2019-02-25 / 2019-03-01

Elkarlanerako ikasketa komunitatearen sorrera

2019-03-04 / 2019-03-08

Soziokonstrukzionismoa: ideia nagusiak, autoreak eta gure ekarpenak

2019-03-11 / 2019-03-15

Lankidetzarako praktikak: kuriositatez eta ez-jakintzaz lan egiten

2019-03-25 / 2019-03-29

Ikasitakoa gure egunerokotasunean txertatuz. Eta orain, zer?

Zuzendariak



Garbiñe Delgado Raack

SolasHari

1981ean jaioa, Gernika-Lumon hazi eta hezi nintzen 18 urte bete arte. Gero psikologia ikasketak egitera Alemaniara joan nintzen, ostean Familia Terapian, Genero Berdintasunean eta Gizarte Hezitzaile moduan formatzen jarraitzeko. Duela 8 urte konstrukzionismo eta lankidetzarako praktiketara hurbildu nintzen bertan diplomatura eta zertifikazio internazionalak, masterra eta doktoretza egin ditudalarik.



Matrikula prezioak

MATRIKULA

2019-03-06 ARTE

[Tarifa bakarra](#)

80,00 EUR